

## OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA KANPAINA

Urriaren 18an, Gasteizko ostalaritza sektoreari zuzendutako ekimen berri bat aurkeztu zen prentsaurrekoan. Uraren zentzuzko erabilera sustatzea helburu duen Futura Planaren barnean dago jasota ekimen hori.

2010eko urritik hasi eta abendura arte garatuko da kanpaina, eta horren bidez, hiriko taberna, kafetegi eta jatetxeek uraren erabilera eraginkorra bultzatzen duten lortu nahi da. 750 establezimendu inguruk jasoko dute doako eta borondatezko aholkularitza, baliabide horren kudeaketa hobetzeko.

Posta bidez jakinarazpena jaso ondoren, teknikari batek establezimendu bakoitza bisitatuko du, komunetako instalazioak aztertzeko eta uraren kontsumoarekin lotutako elementuen (iturrien eta komunen) erabilera egokiari buruzko informazio materiala banatzeko; material hori ostalaritzan lan egiten dutenei nahiz bezeroei zuzentzen zaie. Bisita hori egin ondoren, tabernak edo jatetxeak bere egoerari buruzko txosten bat jasoko du, eta baita hobetzeko aholku batzuk ere. Txosten horri esker, lokalaren jabeak berak egindako kontsumoa sektorearen batez besteko kontsumoarekin alderatu ahal izango du, establezimendu mota kontuan hartuta. Era berean, aholkuak ere eskainiko zaizkio, bere kontsumoaren jarraipena egin ahal izateko, faktura abiapuntutzat hartuta; horrela, instalazioetan izan ditzakeen arazoak errazago hautemango ditu.

Establezimenduren batek kanpainen parte hartzeko interesa badu eta jakinarazpenik jaso ez badu, jar dadila harremanetan Futura Planaren bulegoarekin, Zapatari kaleko 40. zenbakian, 945 25 21 38 telefonoan edota helbide elektronikoa honetan: info@futuraplana.org



### Ba al zenekien...?

Ura izugarri aurrez daiteke, komuneko ponpari tiratzean, isurtzen den ur kopurua erabilerari egokitzuz gero. Tanga batzuek ur gehiago edo gutxiago isurtzeko aukera ematen dute; horretarako, botoi bati edo besteari sakatzeko aukera ematen dute, edota bi aldiz sakatzuz gero, uraren jarioa eteten da. Honako eranskailu hauek lagungarri izango zaizkizu aukera horiek identifikatzeko.



## URA ETA SANEAMENDUAREN KUDEAKETARAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARI BURUZKO II. UDAL JARDUNALDIA

Urriaren 22an, Europa Biltzar Jauregian, *Uraren eta saneamenduen kudeaketarako nazioarteko lankidetzari buruzko II. udal jardunaldia* garatu zen, Euskal Fondoak (Lankidetzarako Udal Erakundeen Euskal Elkarte), Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenean laguntzeko zerbitzuak eta AMVISAK antolatuta.



Euskal Fondoaren eta Euskadiko ur operadore publikoen lankidetzaren barnean, esperientzia praktikoak erakutsi dira jardunaldian, ur eta saneamendu proiektuetan aditu direnek emandako laguntza teknikoaren bidez. 2008an, Euskal Fondoak eta Euskadiko ur operadore publikoek konpromisoa hartu zuten Milurteko Garapen Helburuetan 10.a lortzeko gogoz lan egiteko. Hauxe da helburu hori: edateko urik eta oinarriko saneamendurik ez duten pertsonen kopurua erdira murriztea, 2015erako.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udalak antolatuta, jardunaldiaren bezperan, urriaren 21ean, lan saio bat egin zen: *Ikasbidea, edateko urari buruzko hainbat urtetarako hiru proiekturen ebaluaziotik abiatuta*; berorren balioespena eta ebaluazio teknikoa egiteko AMVISAREN laguntza izan du.

## VITORIA-GASTEIZ: EUROPAKO HIRIBURU BERDEA 2012AN

Vitoria-Gasteiz 2012rako Europako Hiriburu Berde izendatu dutela kontuan hartuta, AMVISAK zorianak eman nahi dizkie gasteiztarrei, eta esker ona adierazi nahi die beren etxetan ur kontsumoa murrizteko egin duten ahaleginagatik, bai eta ondasun berdingabe eta ordezkazekin horren kudeaketa ona egiten laguntzeagatik ere.



Gero eta informazio gehiago badugu, ur kontsumoaz gero eta kontzienteago bagara eta ura aurrezteko keinu txikiak egiten baditugu egunero, guztion artean gure hiriko bizi kalitatearen eta ingurumenaren babesaren alde egingo dugu.

### IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@futuraplana.org